

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EKONOMIA SUSTAPENENKO ETA
PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programako dirulaguntzen 2024ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2024ko maiatzaren 7an:

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko 2024-2027 aldirako Plan Estrategikoarekin bat (non Gipuzkoako garapenerako eredu ekonomiko eta sozial baten alde egiten den), egoerari aurrea hartuz eta proposatzaile eta sustatzaile papera betez, lurralde bat –Gipuzkoa– sustatzen lagundu behar du, politika ekonomiko eta sozialak diseinatuz eta aplikatuz, pertsonen eta gizarte kohesioan oinarrituta.

Hau da, jasangarritasun hirukoitzera bideratutako lurralde gisa, ekonomia, gizarte eta ingurumen erronkei modu proaktiboan aurre eginez, eta, erakunde bakoitzaren gizarte erantzukizunetik abiatuta, bere aktibo ukigarriak eta ukiezinak lankidetzaren eta alde anitzeko konpromisoen bidez jorratuz, alderdi guztientzat balioa sortzen duten irtenbide eraginkorren erabilera.

Deialdi honen helburua da eraginkortasun handiagoa eta hobea bilatzea, baita eragina ere, lehiakortasun ekonomikoan. Eta, era sinergikoan, enpresei zuzendutako beste bi deialditan integratzen dela: pertsonetikiko konpromisoa (lehiakortasuna eta jasangarritasun soziala) eta lurraldearekiko konpromisoa (trantsizio ekologikoa eta bidezkoa).

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak Gipuzkoaren susperraldi ekonomikoa finkatzen lagundu nahi du. Horretarako, portaera enpresarial aurreratu eta jasangarriak sustatuko ditu eta herrialde nahiz lurralde gisa gure politika industrialak eta ekonomikoak ditugun identitate ezaugarriak indartuko ditu. Azken finean, Gipuzkoa sustatu nahi da, hau da, aberastasun jasangarria eta pertsonen ongizatea sortzen direla bermatzen duen Gipuzkoa.

Horretarako, beharrezkotzat jo da Gipuzkoa industrial eta lehiakor bat lortzeko jarduketara ildo batean sakontzea, enpresa txikia lehenesten duena dibertsifikazio eta eraldaketa produktiboaren prozesuak ezagueraz sakondu eta orientatzeko. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren papera prozesu horiek gauzatzeko baldintzak eta guneak ager daitezela sustatzea da eta, beraz, profil erraztailea eta katalizatzailea izango du.

Beraz, kontua da eraldaketa lehiakortasunerantz egiteko bide gisa sustatzea. Hainbat etapan bidez, balioa era jasangarrian sortzea bideratutako prozesua izango da eta, bertan, enpresa bakoitzak bere ibilbidea eraiki beharko du.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA
Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

Convocatoria de 2024 de las subvenciones del programa para promover la generación de oportunidades, el valor diferencial y la sostenibilidad del tejido empresarial de Gipuzkoa.

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 7 de mayo de 2024:

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, en coherencia con el Plan Estratégico de la Diputación Foral 2024-2027 donde se apuesta por un modelo de desarrollo económico y social de Gipuzkoa, desde su rol de anticipación, proponente e impulsor, debe contribuir desde el diseño y aplicación de políticas económicas y sociales a promover un territorio –Gipuzkoa– basado en el bienestar de las personas y la cohesión social.

Y ello, como un territorio orientado a la triple sostenibilidad afrontando de manera proactiva sus retos económicos, sociales y medioambientales, que parte de la responsabilidad social de cada una de sus organizaciones, desarrollando sus activos tangibles e intangibles por la vía de estrategias colaborativas y compromisos multilaterales, con soluciones eficientes que creen valor para todas las partes.

Esta convocatoria se quiere focalizar en la búsqueda de una mayor y mejor operatividad e impacto; en la competitividad económica. Y, que de una forma sinérgica se integra con otras dos convocatorias orientadas a las empresas: el compromiso con las personas (competitividad y sostenibilidad social) y compromiso con el territorio (transición ecológica y justa).

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos pretende contribuir a apuntalar la recuperación económica de Gipuzkoa, impulsando la competitividad de las empresas, promocionando comportamientos empresariales avanzados y sostenibles y fortaleciendo las señas de identidad de nuestra política industrial y económica, como país y como territorio. En definitiva, promover una Gipuzkoa que garantice la generación sostenible de riqueza y el bienestar de las personas.

Para ello se entiende necesario profundizar en una línea de actuación orientada a lograr una Gipuzkoa industrial y competitiva, que priorice a la pequeña empresa para profundizar y orientar más conscientemente el proceso de generación de oportunidades y transformación productivas. Y, donde el papel de la Diputación Foral de Gipuzkoa es favorecer la aparición de condiciones y espacios para que esos procesos tengan lugar y, por lo tanto, asumir el perfil de facilitador y catalizador.

Se trata, pues, de promover la transformación como un camino hacia la competitividad. Un proceso que, a través de diferentes etapas, se oriente a la creación sostenible de valor en el que cada empresa debe construir su propio itinerario.

Orain arte garatutako laguntza-programaren balorazioa oso positiboa da, eta horregatik, funtsean, laguntza-programaren erregulazio berarekin jarraituko da, jarduerak gehiago fokalizatzea bilatuz.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, ardazte eta leheneste politika baten bidez, estrategia bat gauzatzen du (ikusmolde integral batekin, beste politika batzuekin batera garatuta), bost jarduketa ardatzen bidez garatuz:

- Gipuzkoako enpresen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzea.
- Jarduera enpresarialaren jarraitutasuna sustatzea.
- Enpresen arteko lankidetzaren dinamikak gauzatzea.
- Balioa ematea ekonomia sortzaileari.
- Ekosistema sozioekonomikoan ezagutza sustatu, sortu, transferitu eta partekatzea.

Dirulaguntza ildo hau 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE) jasota dago. Izan ere, Diputatuen Kontseiluaren 2024ko otsailaren 20ko erabaki bidez, aipatutako Plan Estrategikoa luzatu egin da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2024. ekitaldirako luzatutako Aurrekontu Orokorretan jasotako dirulaguntzei dagokienez, 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egin eta onetsi bitarte.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

Lehenengo. Onestea Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programako dirulaguntzak emateko 2024 urteko deialdia, erabaki honenkin batera eranskin gisa doana.

Bigarren. 2024ko ekitaldiko deialdiari aurre egiteko 1.861.887,00 euroko gastua baimentzea aurrekontu sail hauen kargura:

a) Bederatzehun eta berrogeita bat mila eta seiehun eta hirurogeita sei euro (941.666,00 €), aukerak eta gaitasunak balio alorretan eraldatzeko proiektuak finantzatzeko (Diputatuen Kontseiluaren 2021eko ekainaren 15eko erabakiaren II. eranskina):

- 1.0510.100.470.00.23.2024: 455.903,00 €.
- 1.0510.100.481.00.17.2024: 109.097,00 €.
- 5.0510.100.470.00.23.2025: 303.935,00 €.
- 5.0510.100.481.00.17.2025: 72.731,00 €.

b) Berrehun eta hirurogeita bederatzi mila eta hirurogeita eta laurogeita hamasei euro (269.396,00 €), enpresa jardueraren jarraipena sustatzeko proiektuak finantzatzeko (Diputatuen Kontseiluaren 2021eko ekainaren 15eko erabakiaren III. eranskina):

- 1.0510.100.470.00.27.2024: 134.435,84 €.
- 1.0510.100.481.00.14.2024: 27.202,33 €.
- 5.0510.100.470.00.27.2025: 89.623,16 €.
- 5.0510.100.481.00.14.2025: 18.134,67 €.

c) Berrehun eta laurogeita hamaika mila eta hamabi euro (291.012,00 €), enpresen arteko lankidetzarako dinamikak egituratzeko proiektuak finantzatzeko (Diputatuen Kontseiluaren 2021eko ekainaren 15eko erabakiaren IV. eranskina):

- 1.0510.100.470.00.02.2024: 174.607,00 €.
- 5.0510.100.470.00.02.2025: 116.405,00 €.

La valoración del programa de ayudas desarrollado hasta el momento es altamente positiva y por ello se continuará sustancialmente con la misma regulación del programa de ayudas, buscando una mayor focalización de las actuaciones.

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos a través de una política de focalización y priorización, articula una estrategia (con una concepción integral desarrollada conjuntamente con otras políticas), a desarrollar a través de cinco ejes de actuación:

- Promover la generación de oportunidades, el valor diferencial y la sostenibilidad de las empresas de Gipuzkoa.
- Impulsar la continuidad de la actividad empresarial.
- Articular dinámicas de colaboración interempresarial.
- Valorizar la economía creativa.
- Promover, generar, transferir y compartir conocimiento en el ecosistema socio-económico.

Esta línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES), prorrogado por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 20 de febrero de 2024 para las líneas de subvenciones contempladas dentro de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa prorrogados para el año 2024, en tanto se procede a elaborar y aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

Primero. Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2024 de las subvenciones del Programa para promover la generación de oportunidades, el valor diferencial y la sostenibilidad del tejido empresarial de Gipuzkoa, que se adjunta al presente acuerdo como anexo.

Segundo. Autorizar un gasto por importe de 1.861.887,00 euros para hacer frente a la convocatoria del ejercicio 2024 con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

a) Novecientos cuarenta y un mil seiscientos sesenta y seis euros (941.666,00 €), para la financiación de proyectos para transformar oportunidades y competencias en ámbitos de valor (anexo II del acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 15 de junio de 2021):

- 1.0510.100.470.00.23.2024: 455.903,00 €.
- 1.0510.100.481.00.17.2024: 109.097,00 €.
- 5.0510.100.470.00.23.2025: 303.935,00 €.
- 5.0510.100.481.00.17.2025: 72.731,00 €.

b) Doscientos sesenta y nueve mil trescientos noventa y seis euros (269.396,00 €), para la financiación de proyectos para impulsar la continuidad de la actividad empresarial (anexo III del acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 15 de junio de 2021):

- 1.0510.100.470.00.27.2024: 134.435,84 €.
- 1.0510.100.481.00.14.2024: 27.202,33 €.
- 5.0510.100.470.00.27.2025: 89.623,16 €.
- 5.0510.100.481.00.14.2025: 18.134,67 €.

c) Doscientos noventa y un mil doce euros (291.012,00 €), para la financiación de proyectos para articular dinámicas de colaboración interempresarial (anexo IV del acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 15 de junio de 2021):

- 1.0510.100.470.00.02.2024: 174.607,00 €.
- 5.0510.100.470.00.02.2025: 116.405,00 €.

d) Ehun eta laurogeita lau mila eta zortziehun eta hirurogeita hamar euro (184.870,00 €), ekonomia sortzailea balioesteko proiektuak finantzatzeko (Diputatuen Kontseiluaren 2021eko ekainaren 15eko erabakiaren VI. eranskina):

1.0510.100.470.00.04.2024: 78.286,69 €.
1.0510.100.481.00.06.2024: 32.635,00 €.
5.0510.100.470.00.04.2025: 52.191,31 €.
5.0510.100.481.00.06.2025: 21.757,00 €.

e) Ehun eta hirurogeita hamalau mila eta bederatziehun eta berrogeita hiru euro (174.943,00 €), Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoan ezagutza sustatu, sortu, transferitu eta partekatzeko proiektuak finantzatzeko (Diputatuen Kontseiluaren 2021eko ekainaren 15eko erabakiaren VIII. eranskina):

1.0510.100.745.00.05.2024: 13.800,00 €.
1.0510.100.770.00.05.2024: 49.766,00 €.
1.0510.100.781.00.05.2024: 41.400,00 €.
5.0510.100.745.00.05.2025: 9.200,00 €.
5.0510.100.770.00.05.2025: 33.177,00 €.
5.0510.100.781.00.05.2025: 27.600,00 €.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldatetaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzeara.

Nolanahi ere, dirulaguntzek gastu arruntak nahiz inbertsioak finantzatu ditzaketenez, jasotzen diren eskaerak ikusita, eta proiektuetan nagusia den gastu mota kontuan hartuta, beharrezko aurrekontu egokitzapenak izapidetuko dira, emango diren laguntzak diruz lagundutako gastuaren izaerari egokitzearren.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Donostia, 2024ko maiatzaren 10a.—Idazkari teknikoa, ez dagoenez, Iñaki Egizurain Nebreda, Lege Aholkularitza eta Koordinazioaren zuzendaria. (3491)

ERANSKINA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programako dirulaguntzen 2024ko deialdia.

1. Oinarri arautzaileak.

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programako dirulaguntzen oinarri arautzaileak Diputatuen Kontseiluak 2021eko ekainaren 15eko akordioaren bidez onetsi ziren (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 114 zk, 2021eko ekainaren 18koa). Oinarri arautzaile horiek Diputatuen kontseiluak aldatu ditu 2022ko maiatzaren

d) Ciento ochenta y cuatro mil ochocientos setenta euros (184.870,00 €), para la financiación de proyectos para valorizar la economía creativa (anexo VI del acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 15 de junio de 2021):

1.0510.100.470.00.04.2024: 78.286,69 €.
1.0510.100.481.00.06.2024: 32.635,00 €.
5.0510.100.470.00.04.2025: 52.191,31 €.
5.0510.100.481.00.06.2025: 21.757,00 €.

e) Ciento setenta y cuatro mil novecientos cuarenta y tres euros (174.943,00 €), para la financiación de proyectos para promover, generar, transferir y compartir conocimiento en el ecosistema socio-económico de Gipuzkoa (anexo VIII del acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 15 de junio de 2021):

1.0510.100.745.00.05.2024: 13.800,00 €.
1.0510.100.770.00.05.2024: 49.766,00 €.
1.0510.100.781.00.05.2024: 41.400,00 €.
5.0510.100.745.00.05.2025: 9.200,00 €.
5.0510.100.770.00.05.2025: 33.177,00 €.
5.0510.100.781.00.05.2025: 27.600,00 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

Dado que se pueden financiar gastos corrientes o de inversión, a la vista de las solicitudes recibidas y en función del tipo de gasto predominante en los proyectos, se tramitarán las adaptaciones presupuestarias que resulten procedentes, a fin de adecuar las ayudas a conceder a la naturaleza del gasto subvencionado.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 10 de mayo de 2024.—El secretario técnico, por ausencia, el jefe de Sección de Asesoramiento Jurídico y Coordinación, Iñaki Egizurain Nebreda. (3491)

ANEXO

Convocatoria 2024 de las ayudas del Programa para promover la generación de oportunidades, el valor diferencial y la sostenibilidad del tejido empresarial de Gipuzkoa.

1. Bases reguladoras.

Las bases reguladoras para la concesión de las subvenciones del programa para promover la generación de oportunidades, el valor diferencial y la sostenibilidad del tejido empresarial de Gipuzkoa son las aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de fecha 15 de junio de 2021 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 114, de 18 de junio de 2021), modificadas por acuerdos de

20ko (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 95 zk, 2022ko maiatzaren 20ean,) eta 2023ko otsailaren 7ko (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 32 zk, 2023ko otsailaren 16an) erabakien bidez.

2. Eskaerak aurkezteko epea.

2.1. Eranskin gisa jasotzen den eskaera aurkeztu ahal izango dute II., III., IV. VI, eta VIII. eranskinetako 2. oinarria espezifikoa aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten entitateek.

2.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2024ko ekainaren 20an, goizeko 12:00etan amaituko da.

3. Jarduerak hasteko eta gauzatzeko epea.

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak laguntza eskatu ondoren hasi behar dira, urte naturalaren barruan, eta 2025eko ekainaren 30erako amaitu behar dira.

4. Ebazpenak jakinarazteko bidea.

Dirulaguntza emateko, edo kasua balitz, ukatzeko ebazpena entitate eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio. Dena dela, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ere argitaratuko dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 17. artikuluarri jarraikiz.

5. Finantzaketa.

Deialdi honen bidez emango diren dirulaguntzen zenbateko osoa 1.861.887,00 euro da. Zenbateko hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2024ko aurrekontu orokorreko honako kontu sailetan eta ildo nagusietan banatuko da:

a) Bederatzehun eta berrogeita bat mila eta seiehun eta hirurogeita sei euro (941.666,00 €), aukerak eta gaitasunak balio alorretan eraldatzeko proiektuak finantzatzeko (II. eranskina):

1.0510.100.470.00.23.2024: 455.903,00.
1.0510.100.481.00.17.2024: 109.097,00.
5.0510.100.470.00.23.2025: 303.935,00.
5.0510.100.481.00.17.2025: 72.731,00.

b) Berrehun eta hirurogeita bederatzi mila eta hirurehun eta laurogeita hamasei euro (269.396,00 €), enpresa jardueraren jarraipena sustatzeko proiektuak finantzatzeko (III. eranskina):

1.0510.100.470.00.27.2024: 134.435,84.
1.0510.100.481.00.14.2024: 27.202,33.
5.0510.100.470.00.27.2025: 89.623,16.
5.0510.100.481.00.14.2025: 18.134,67.

c) Berrehun eta laurogeita hamaika mila eta hamabi euro (291.012,00 €), enpresen arteko lankidetzarako dinamikak egituratzeko proiektuak finantzatzeko (IV. eranskina):

1.0510.100.470.00.02.2024: 174.607,00.
5.0510.100.470.00.02.2025: 116.405,00.

d) Ehun eta laurogeita lau mila eta zortziehun eta hirurogeita hamar euro (184.870,00 €), ekonomia sortzailea balioesteko proiektuak finantzatzeko (VI. eranskina):

1.0510.100.470.00.04.2024: 78.286,69.
1.0510.100.481.00.06.2024: 32.635,00.
5.0510.100.470.00.04.2025: 52.191,31.
5.0510.100.481.00.06.2025: 21.757,00.

e) Ehun eta hirurogeita hamalau mila eta bederatzehun eta berrogeita hiru euro (174.943,00 €), Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoan ezagutza sustatu, sortu, transferitu eta partekatzeko proiektuak finantzatzeko (VIII. eranskina):

Consejo de Gobierno foral de 10 de mayo de 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 95 de 20 de mayo de 2022) y de 7 de febrero de 2023 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 32 de 16 de febrero de 2023).

2. Presentación de solicitudes.

2.1. Podrán presentar solicitud, conforme al modelo que se adjunta, aquellas entidades que cumplan los requisitos previstos en la base específica 2.ª de los anexos II, III, IV, VI, y VIII.

2.2. El plazo de presentación de las solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará el 20 de junio de 2024 a las 12:00 horas.

3. Plazo de inicio y ejecución de las actuaciones.

Las actuaciones objeto de subvención deben iniciarse con posterioridad a la solicitud de la ayuda, dentro del año natural y deberán concluir para el 30 de junio de 2025.

4. Medio de notificación de la resolución.

La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará individualmente a cada entidad solicitante, sin perjuicio de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa en los términos del artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

5. Financiación.

La cuantía total de las subvenciones a conceder en la presente convocatoria será de 1.861.887,00 euros, distribuidos entre los siguientes ámbitos de actuación y partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2024:

a) Novcientos cuarenta y un mil seiscientos sesenta y seis euros (941.666,00 €), para la financiación de proyectos para transformar oportunidades y competencias en ámbitos de valor (anexo II):

1.0510.100.470.00.23.2024: 455.903,00.
1.0510.100.481.00.17.2024: 109.097,00.
5.0510.100.470.00.23.2025: 303.935,00.
5.0510.100.481.00.17.2025: 72.731,00.

b) Doscientos sesenta y nueve mil trescientos noventa y seis euros (269.396,00 €), para la financiación de proyectos para impulsar la continuidad de la actividad empresarial (anexo III):

1.0510.100.470.00.27.2024: 134.435,84.
1.0510.100.481.00.14.2024: 27.202,33.
5.0510.100.470.00.27.2025: 89.623,16.
5.0510.100.481.00.14.2025: 18.134,67.

c) Doscientos noventa y un mil doce euros (291.012,00 €), para la financiación de proyectos para articular dinámicas de colaboración interempresarial (anexo IV):

1.0510.100.470.00.02.2024: 174.607,00.
5.0510.100.470.00.02.2025: 116.405,00.

d) Ciento ochenta y cuatro mil ochocientos setenta euros (184.870,00 €), para la financiación de proyectos para valorizar la economía creativa (anexo VI):

1.0510.100.470.00.04.2024: 78.286,69.
1.0510.100.481.00.06.2024: 32.635,00.
5.0510.100.470.00.04.2025: 52.191,31.
5.0510.100.481.00.06.2025: 21.757,00.

e) Ciento setenta y cuatro mil novecientos cuarenta y tres euros (174.943,00 €), para la financiación de proyectos para promover, generar, transferir y compartir conocimiento en el ecosistema socio-económico de Gipuzkoa (anexo VIII):

1.0510.100.745.00.05.2024: 13.800,00.
1.0510.100.770.00.05.2024: 49.766,00.
1.0510.100.781.00.05.2024: 41.400,00.
5.0510.100.745.00.05.2025: 9.200,00.
5.0510.100.770.00.05.2025: 33.177,00.
5.0510.100.781.00.05.2025: 27.600,00.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratea.

6. Urteko lehentasunak.

6.1. Honako hauek dira 2024ko ekitaldian II. eranskinean sustatuko diren jardueren bidez lortu nahi diren helburu bereziak:

- ETEek garatzen dituzten edo haiek xedatutako proiektuak, batez ere enpresa txikiak.
- Industria sektoreko eta industriari loturiko zerbitzuen sektoreko enpresen proiektuak.
- Enpresen eskaintza dibertsifikatzen duten eta balio katean kokatzen duten proiektuak.
- Kalitatezko enpleguari eustea eta haztea bermatzen duten proiektuak.
- Ekonomia zirkularrarekin, industria aurreratuarekin eta biozientzia-osasunarekin eta ekonomia sortzailearekin zerikusia duten proiektuak.

6.2. Honako hauek dira 2024ko ekitaldian III. eranskinean sustatuko diren jardueren bidez lortu nahi diren helburu bereziak:

- ETEek garatzen dituzten edo haiek hartzen dituzten proiektuak, batez ere enpresa txikiak.
- Industria sektoreko eta industriarekin lotutako zerbitzuetako enpresen proiektuak.
- Enpresa-jardueraren jarraipena ahalbidetuko duten dinamikak ezartzea.
- Kalitatezko enpleguari eustea eta haztea bermatzen duten proiektuak.

6.3. Honakoak dira 2024ko ekitaldian IV. eranskinean sustatuko diren jardueren bidez lortu nahi diren helburu bereziak:

- ETEek garatutako planak, batez ere, enpresa txikiak.
- Industria sektoreko eta industriarekin lotutako zerbitzuetako enpresen proiektuak.
- Zenbait sektoreen hibridazioaren emaitza diren proiektuak.
- Guztira 30 pertsona batzen dituen enpresen multzoak buruzko proiektuak.
- Enpresen arteko lankidetzaren prozesu berriak.

7. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskaeran honako informazioa sartu behar da:

- Laguntza eskatzen duen entitatearen datuak.
- Dirulaguntzaren xede den proiektuaren edo jardueraren deskripzio memoria, balorazio irizpideak aplikatzeko aukera ematen duena.
- Aurkeztutako proiektuaren xehetasunezko aurrekontua.

1.0510.100.745.00.05.2024: 13.800,00.
1.0510.100.770.00.05.2024: 49.766,00.
1.0510.100.781.00.05.2024: 41.400,00.
5.0510.100.745.00.05.2025: 9.200,00.
5.0510.100.770.00.05.2025: 33.177,00.
5.0510.100.781.00.05.2025: 27.600,00.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

6. Prioridades anuales.

6.1. Los objetivos específicos que pretenden alcanzarse en el ejercicio 2024 con las actuaciones a promover en el anexo II son los siguientes:

- Proyectos desarrollados por o dirigidos a PYMES, fundamentalmente pequeñas empresas.
- Proyectos de empresas del sector industrial y servicios conexos a la industria.
- Proyectos que diversifiquen la oferta de las empresas y las reposicione en la cadena de valor.
- Proyectos que garanticen el mantenimiento y el crecimiento del empleo de calidad.
- Proyectos relacionados con la economía circular, y la industria avanzada, las biociencias-salud y economía creativa.

6.2. Los objetivos específicos que pretenden alcanzarse en el ejercicio 2024 con las actuaciones a promover en el anexo III son los siguientes:

- Proyectos desarrollados por o que incorporen a PYMES, fundamentalmente pequeñas empresas.
- Proyectos de empresas del sector industrial y servicios conexos a la industria.
- Implación de dinámicas que posibiliten la continuidad de la actividad empresarial.
- Proyectos que garanticen el mantenimiento y el crecimiento del empleo de calidad.

6.3. Los objetivos específicos que pretenden alcanzarse en el ejercicio 2024 con las actuaciones a promover en el anexo IV son los siguientes:

- Planes de colaboración desarrollados por PYMES, fundamentalmente pequeñas empresas.
- Proyectos de empresas del sector industrial y/o servicios conexos a la industria.
- Proyectos que sean fruto de la hibridación de sectores diferentes.
- Proyectos que como mínimo integren a empresas que de forma conjunta integren a 30 personas.
- Nuevos procesos de colaboración entre empresas.

7. Documentación a presentar.

En la solicitud deberá incluirse la siguiente información:

- Datos de la entidad solicitante.
- Memoria descriptiva del proyecto o la actividad para la que se solicita la subvención que permita la aplicación de los criterios de valoración.
- Presupuesto detallado del proyecto presentado.

d) Erantzukizunpeko adierazpena eranskinean edo bide telematikoz egindako eskaeran dagoen ereduari jarraituz, ez dagoela Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan aurreikusten diren onuradun izateko eragozten duten egoeratan eta ez dagoela 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 23. artikulua 2. zenbakiak adierazitako debeku-kasuetako baten mende.

e) Eskuragarri dagoen azken Langileen Zerrenda Nominala-RNT edo/eta Langile autonomoen eta/edo bazkide kooperatibisten kasuan, RNT beharrez, dagokion Gizarte Segurantzaren edo antzeko entitatearen ziurtagiria, VIII. eranskinean izan ezik.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak deialdi honetan egiaztatuko ditu plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae, Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez eskatzaileak zerga be-tebeharra eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Pertsona edo erakunde eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

8. Borondatezko itzulketa.

Onuradunak borondatezko itzulketa egin nahi badu, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako foru diputatuari 15. oinarri orokorrean zehazten den moduan.

d) Declaración responsable, conforme al modelo que se incluye en el anexo o en la solicitud telemática, de no concurrir en la entidad solicitante ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiaria de las indicadas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de no estar sometida a ninguno de los supuestos de prohibición previstos en el art. 23, apartado 2.º del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra la Mujer.

e) Última relación Nominal de Trabajadoras y trabajadores disponible o en el caso de trabajadoras autónomas y trabajadores autónomos y/o socias y socios cooperativistas, en lugar de RNT, el certificado de la Seguridad Social o entidad asimilada correspondiente que corresponda, excepto en al anexo VIII.

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos verificará en esta convocatoria a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae, nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

En el caso de que la persona o entidad solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quién deba presentar la documentación.

8. Devolución voluntaria.

En el caso de que el beneficiario proceda a la devolución voluntaria, dirigirá un escrito al diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, tal y como señala la base general 15.



Urteko deialdia / Convocatoria Anual

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren **GIPUZKOAKO ENPRESA SAREAREN AUKERAK, BALIO DIFERENTZIALA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATZEKO PROGRAMAREN** 2024ko deialdiko dirulaguntza eskaera:

Solicitud a la convocatoria de ayudas 2024 del Departamento de Promoción Económica y Proyectos estratégicos: **PROGRAMA PARA PROMOVER LA GENERACIÓN DE OPORTUNIDADES, EL VALOR DIFERENCIAL Y LA SOSTENIBILIDAD DEL TEJIDO EMPRESARIAL DE GIPUZKOA:**

Entitatea / Entidad		IFZ/NIF	
Eskatzailea / Persona que solicita		NA/DNI	
Kargua / Cargo:			

Eranskin a Anexo		Eskatutako zenbatekoa Importe Solicitado
II.	<i>Aukerak eta gaitasunak balio alorretan eraldatzea/ Transformar oportunidades y competencias en ámbitos de valor.</i>	€
III.	<i>Enpresa jardueraren jarraipena sustatzea/ Impulsar la continuidad de la actividad empresarial.</i>	€
IV.	<i>Enpresen arteko lankidetzarako dinamikak egituratzea/ Articular dinámicas de colaboración interempresarial.</i>	€
VI.	<i>Ekonomia sortzailea balioestea/ Valorizar la economía creativa.</i>	€
VIII.	<i>Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoan ezagutza sustatu, sortu, transferitu eta partekatzea. Promover, generar, transferir y compartir conocimiento en el ecosistema socio-económico de Gipuzkoa.</i>	€

Jakinartzten dizugu zure datu pertsonalak Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiaren (Gipuzkoa plaza z.g., 20004 Donostia) ardurapeko datu tratamendu batean sartuko direla. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kentzeko, aurkaratzeko eta tratamendua mugatzeko eskubideak gauzatu ahal izango dituzu, helbide horretara idatzi bat bidaliz

Zure datu pertsonalak tratatzeko helburua da dirulaguntzen deialdia kudeatzea eta ebaztea, deialdiak duen interes publikoan eta parte hartzeko egin duzun eskaeran oinarrituta.

Eskatzaileen datuak jakinarazi ahal izango zaizkie zerga administrazioari eta fiskalizazio organoei, kontabilitate kontrola egiteko, eta banketxei, ordainketak kudeatzeko. Era berean, beste hirugarren batzuei jakinaraziko zaizkie, lege mailako araudian jasotzen diren kasuetan.

Se informa que sus datos personales serán incluidos en un tratamiento de datos cuyo responsable es la Dirección General de Promoción Económica (plaza Gipuzkoa s/n, San Sebastián) y ante la cual podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, enviando un escrito dirigido a la misma.

Sus datos personales serán tratados con la finalidad de gestión y resolución de la convocatoria de subvenciones, basado en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella.

Los datos relativos a las personas solicitantes podrían ser comunicados a la administración tributaria, a órganos de fiscalización, para el control contable y a entidades bancarias para gestionar los abonos. Igualmente, se comunicarán a otros terceros en supuestos contemplados en normas de rango de ley.



Datuak gordeko dira dirulaguntza emateko prozeduraren tramitazioak eta sor daitezkeen erreklamazioen tramitazioak irauten duen bitartean.

Zure datu pertsonalen tratamenduari eta zure eskubideen erabilerari dagokienez, harremanetan jar zaitezke helbide honetan: dbo@gipuzkoa.eus

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede ponerse en contacto en esta dirección: dbo@gipuzkoa.eus

Lekua eta data / Lugar y fecha

..... 2024ko,(a)ren.....a

En, a..... dede 2024

Entitatearen ordezkaritza legala duenaren sinadura eta entitatearen zigilua

Firma de quien ostenta la representación legal y sello de la entidad





ARDURAPEKO ADIERAZPENA

.....
..... jaunak/andreak, adinez nagusiak, zenbakiko NA eta
..... helbidea dituenak,entitatearen ordezkartzan (IFZ:, sozietate helbidea:), diharduenak adierazia:

1. Ez bera ezta berak ordezkatzan duen enpresa ere ez daude sartuta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeretan.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere eskumenak egikaritzuz, beharrezko egiaztapenak egingo ditu, zerga betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarenak beteak dituela ziurtatzeko.

Ez du baimenik ematen.

3. Baimena ematen du eskumena duten organoek laga diezaioten dirulaguntza kudeatzen duen administrazio publikoari ordezkatzutako enpresari buruzko 16. oinarri orokorrean adierazitakoarekin lotutako informazio fiskala:

BAIMENA EMATEN DU
 EZ DU BAIMENA EMATEN

4. Ez dagoela 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 23. artikulua 2. zenbakiak adierazitako debeku-kasuetako baten mende.

5. Ez da aritzen armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herralde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

6. Azken hiru urteetan jaso diren eta guztira 300.000 eurotik beherakoak diren erakunde publikoen edo aurrekontu publikoen kargura finantzatzen diren erakunde pribatuen *minimis* dirulaguntzak honako hauek dira:

DECLARACIÓN RESPONSABLE

D/Dª
....., mayor de edad, con DNI n.º y domicilio en
....., en representación de con NIF y domicilio social en declara:

1º.- Que no concurren ni en él/ella ni en la entidad a la que representa ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2º.- La Diputación Foral de Gipuzkoa efectuará en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

No autoriza.

3º.- Autoriza expresamente para que los órganos competentes procedan a ceder a la administración pública gestora de la subvención la información fiscal relacionada con lo señalado en la base general 16ª, relativa a la empresa representada:

AUTORIZA
 NO AUTORIZA

4º.- No estar sometida a ninguno de los supuestos de prohibición previstos en el art. 23, apartado 2.º del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujer.

5º.- No se dedica a la producción, comercialización y financiación de armamento, de conformidad con lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 14/2007, de 28 de diciembre, de Carta de Justicia y Solidaridad con los Países Empobrecidos.

6º.- Que todas las ayudas de *minimis* de entidades públicas o entes privados financiados con cargo a presupuestos públicos recibidas en los tres últimos años, cuyo importe total es inferior a 300.000 euros, son las siguientes:



Erakundea Organismo	Deialdia Convocatoria	Onarpen data Fecha aprobación	Jasotako kopurua Importe recibido

7. Deialdi honetan proiektu bererako eskatutako edo eskuratutako dirulaguntzak honako hauek dira:

7º.- Que las subvenciones solicitadas y/o obtenidas para el mismo proyecto de la presente convocatoria han sido las siguientes:

Erakundea Organismo	Deialdia Convocatoria	Eskaera edo onarpen data Fecha de solicitud o aprobación	Eskatutako edo jasotako kopurua Importe solicitado o recibido

8º.- VIII. eranskinean jasotzen den dirulaguntza eskatuz gero ("*Gipuzkoako ekosistema sozio-ekonomikoan ezagutza sustatzea, sortzea, transferitzea eta partekatzea*"), ez dago berreskuratze-agindu baten mende, Europar Batasuneko Batzordeak dirulaguntza legez kontrakoa dela eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela alde zuzenetik erabaki ondoren, ezta krisian ere, 651/2014 Erreklamenduak (EB) bere 2. artikulua 18. atalean egiten duen definizioaren arabera.

8º.- En el caso de solicitar la ayuda o subvención prevista en el anexo VIII ("*Promover, generar, transferir y compartir conocimiento en el ecosistema socio-económico de Gipuzkoa*"), no está sujeta a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión de la Unión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común, y que no se encuentra en crisis según la definición del artículo 2, apartado 18 del Reglamento (UE) nº 651/2014.

9. Aitorpen honetan nahiz eskaeran eta eskaerari erantsita dauden dokumentuetan azaltzen diren datuak egiazkoak dira, eta ezagutzen eta onartzen ditu Laguntza Programako araudian ezarritako baldintzak.

9º.- Que los datos contenidos en la presente declaración como en la solicitud y el conjunto de documentos asociados a dicha solicitud de ayuda se ajustan a la realidad y que conoce y acepta las condiciones establecidas en la normativa reguladora del Programa de Ayudas.

10. Badaki, ez-betetzeek edo emandako informazioaren eta dokumentazioaren zuzentasun ezak erantzukizun penal, administratibo edo zibilak ekar ditzaketela

10º.- Que conoce que el incumplimiento o la inexactitud en la información y documentación suministradas pueden dar lugar a responsabilidades penales, administrativas y civiles.

11. Ezagutzen eta onartzen ditu abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestekoak eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, ezartzen dituen baldintzak

11º.- Que conoce y acepta las condiciones que establece la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

(Lekua, eguna eta sinadura)

(Lugar, fecha y firma)